

### AFILIATUAK

2017an 924.159 pertsona egon dira afiliatuta batez beste (hileroko zenbatekoen batez bestekoa). Iaz baino 21.799 afiliatu gehiago dira; beraz, % 2,4 egin du gora afiliatuen kopuruak. 2017an afiliatuen batez besteko kopuruaren urtetik urterako igoera (+18.881) handiagoa izan da 2016koa baino; % 2,1 egin du gora. Urtearen amaieran afiliazio-tasa, afiliatutako pertsonak eta lurraldeko biztanleria erlazionatzen dituen, % 71,7koa izan da 20-64 urteko adin-tartean.

2009ko urtarrilaz geroztik (krisialdia hasi zenetik) afiliatuen kopuruak % 1 egin du behera. Hiru lurraldeei erreparatuta, Araban zertxobait gora egin du, % 0,1 hain zuzen, eta krisialdia hasi aurreko afiliazio-zenbatekoak lortu dira berriro, Gipuzkoan % 0,3 soilik egin du behera, eta Bizkaian izan du bilakaera okerreana, % 1,8 egin baitu behera. Datu horiek adierazten dutenez, 2009an krisiak ez zuen artean ondorio larririk eragin afiliazioan; beraz, 2009ko hasierako datuak ez dira segida historikoan ageri diren okerrenak. Horrez gainera, gaur egun afiliazioa ez da guztiz leheneratu, krisialdiaren ostean; beraz, etorkizunean gora egitea espero da.

#### • LURRALDE HISTORIKOAK

Afiliatuen % 16,4k (151.983 pertsona) Araban dute lantokia, % 50,1ek Bizkaian (462.653 pertsona) eta gainerakoek Gipuzkoan (309.523 pertsona, %33,5). Urtetik urterako hazkunde handiena Araban izan da (% 2,8ko igoera) eta txikiena Bizkaian (% 2,1eko igoera). Afiliazio-tasa % 79koa izan da Araban, % 74koa Gipuzkoan eta % 68,3koa Bizkaian. Arabak afiliazio-tasa handiagoa izan du; izan ere, Araban handiagoa da beste lurralde batean helbidea duten langileen ehunekoak.

#### • BESTEREN KONTURA ETA NORBERAREN KONTURA

2017an 751.713 afiliatuk besteren kontura lan egin dute (afiliatuen % 81,3) eta 172.447 afiliatu norberaren kontura aritu dira (afiliatuen % 18,7). Besteren kontura diharduten afiliatuen kopuruak % 3,2 egin du gora (23.076 afiliatu gehiago); aitzitik, norberaren kontura ari diren afiliatuen kopuruak % 0,7 egin du behera (1.276 afiliatu gutxiago). Ekonomiaren suspertzeak lan-merkatuan jarduteko aukerak handitzen ditu; horregatik, langabeek besteren kontura lan egiteko aukera gehiago dituzte, eta ez dute norberaren enpresa sortzeko premiarik.

Afiliatu autonomoen ehuneko handiena Gipuzkoan lantokia dutenen artean ageri da (afiliatuen % 21,7); afiliatu autonomoen ehuneko txikiena, berriz, Araban lantokia dutenen artean (% 13,8). Autonomoen tasa handiena Gipuzkoan badago ere, lurralde horretan izan da beherakada handiena (-% 1). Beherakada txikiena, berriz, Bizkaian izan da; % 0,5ekoa hain zuzen ere.

Besteren konturako kontratuei erreparatuta, gorakada handiena Gipuzkoan izan da (+% 3,7) eta txikiena Bizkaian (+% 2,7).

#### • JARDUERA

Afiliatuen proportzio handiena txikizkako merkataritzan ageri da; jarduera horretan dihardute afiliatuen % 6,4k (83.794 pertsona). Horren ondoren, hezkuntzak afiliatuen % 4,9 biltzen du (64.872 pertsona), janari- eta edari-zerbitzuek afiliatuen % 4,4 (57.597 pertsona) eta osasun-jarduerak % 4,3 (57.100 pertsona).

Afiliatuen kopuru adierazgarria biltzen duten jardueren artean, etxeetako jarduerak, norberak erabiltzeko ondasunen eta zerbitzuen ekoizle gisa, izan du urtetik urterako igoera handiena, % 15,2 egin baitu gora (4.337 afiliatu gehiago). Bestalde, beherakada erlatibo handiena ordenagailuen konponketan izan da, % 6,4 egin baitu behera (268 pertsona gutxiago).

## 2017ko afiliazio-txostena

Arabako afiliatuak ehuneko handiena Administrazio Publikoak osatzen du, afiliatuak % 5,9 biltzen baitu jardueraren horrek (11.759 pertsona). Halaber, afiliatuak kopuru adierazgarriak biltzen dira txikizkako merkataritzan (10.730 pertsona, afiliatuak % 5,4), hezkuntzan (9.742 pertsona, afiliatuak % 4,9), osasun-jardueretan (9.211 pertsona, afiliatuak % 4,7) eta janari- eta edari-zerbitzuetan (8.492 pertsona, afiliatuak % 4,3).

Arabako afiliatuak kopuru adierazgarria duten jardueren artean, administrazio-jardueretan izan da afiliatuak gorakada erlatibo handiena (% 20,7 egin du gora afiliatuak kopuruak, 218 pertsona gehiago). Bestalde, beherakada erlatibo handiena finantza-zerbitzuetan (100 pertsona gutxiago) eta beste garraio-material batzuen ekoizpenean (160 pertsona) izan da: bietan % 8,7 egin du behera.

Bizkaian, afiliatuak ehuneko handiena txikizkako merkataritzak biltzen du, afiliatuak % 6,8 hartzen baitu jardueraren horrek (47.380 pertsona). Halaber, afiliatuak kopuru adierazgarriak biltzen dira hezkuntzan (32.598 pertsona, afiliatuak % 4,7), osasun-jardueretan (29.436 pertsona, afiliatuak % 4,2), eta janari- eta edari-zerbitzuetan (28.701 pertsona, afiliatuak % 4,1).

Bizkaian, afiliatuak kopuru adierazgarria duten jardueren artean, posta-jardueretan izan da afiliatuak gorakada erlatibo handiena (% 15,7 egin du gora afiliatuak kopuruak, 228 pertsona gehiago). Bestalde, beherakada erlatibo handiena ordenagailuen konponketan izan da, % 6,5 egin baitu behera (149 pertsona gutxiago).

Gipuzkoan, afiliatuak ehuneko handiena txikizkako merkataritzak biltzen du, afiliatuak % 6 hartzen baitu jardueraren horrek (25.684 pertsona). Halaber, afiliatuak kopuru adierazgarriak biltzen dira hezkuntzan (22.531 pertsona, afiliatuak % 5,3), janari- eta edari-zerbitzuetan (20.403 pertsona, afiliatuak % 4,8) eta osasun-jardueretan (18.453 pertsona, afiliatuak % 4,3).

Gipuzkoan, afiliatuak kopuru adierazgarria duten jardueren artean, etxeetako jardueretan izan da afiliatuak gorakada erlatibo handiena (% 18,1 egin du gora afiliatuak kopuruak, 1.712 pertsona gehiago). Bestalde, beherakada erlatibo handiena ordenagailuen konponketan izan da, % 6,8 egin baitu behera (87 pertsona gutxiago).

EAEko afiliatuak kopuru adierazgarria duten jardueren artean, 2009tik aurrera afiliatuak zenbateko absolutu zein erlatiboetan gorakada handienak izan dira etxeetako jarduerak, etxeetako langileen enplegatzaile gisa (15.715 afiliatu gehiago, % 1eko hazkundea). Bestalde, afiliatuak kopuru adierazgarria duten jardueren artean, zenbateko absolutuetan beherakada handiena eraikuntza espezializatuan izan da (17.576 afiliatu gutxiago) eta beherakada erlatibo handiena, berriz, alokairu-jardueretan izan da (% 0,6 gutxiago).

### • SEXUA

Urtearen amaieran, afiliatuak % 52,8 gizonak ziren, eta % 47,2 emakumeak. Gizonen afiliazio-tasa % 75,7 izan da, eta emakumeena % 67,7.

Lurralde historikoei erreparatuta, gizon afiliatuak proportzio handiena Araban ageri da (% 54,9 gizonak dira), eta txikiena Gipuzkoan (% 51,9); beraz, emakumeen proportzio txikiena Araban dago (% 45,1 emakumeak dira), eta handiena Gipuzkoan (% 48,1). Bizkaiko afiliatuak artean, % 53,2 gizonak dira, eta % 46,8 emakumeak.

## 2017ko afiliazio-txostena

Gizonen artean, afiliazio-tasa handiena Araban dago (% 86,2), eta txikiena Gipuzkoan (% 71,2); Bizkaian, berriz, gizonen % 78,3 afiliatuta dago. Emakumeen artean, halaber, afiliazio-tasa handiena Araban dago (% 71,8), eta txikiena Gipuzkoan (% 65,4); Bizkaian, berriz, emakumeen % 69,7 afiliatuta dago. Oraindik ere, emakumeen afiliazio-tasa eta proportzioa nabarmen txikiagoa da, gizonena baino.

### • ESTATUAREKIKO ALDERAKETA

Estatuan, oro har, afiliazio-tasa % 64,5koa izan da: % 69 gizonen artean eta % 59,9 emakumeen artean. EAEn, berriz, afiliazio-tasa % 71,7koa izan da (estatukoa baino 7,2 puntu gehiago): % 75,7 gizonen artean (estatukoa baino 6,7 puntu gehiago) eta % 67,7 emakumeen artean (estatukoa baino 7,8 puntu gehiago). Afiliazio-tasen arteko aldea, sexuen artean, handiagoa da estatuan, oro har, EAEn baino (9,1 eta 8 puntu, hurrenez hurren). Estatuan, afiliatuen % 53,7 gizonak dira eta % 46,3 emakumeak; EAEn afiliatuen % 52,8 gizonak dira –estatuan baino proportzio txikiagoa– eta emakumeen proportzioa, beraz, handiagoa da, estatuan baino.

Estatuko autonomia-erkidegoen artean, afiliazio-tasa handiena Madrilgo Erkidegokoa da (% 76). Afiliazio-tasa handiena duten autonomia-erkidegoen artean bigarrena da Euskadi. Gauza bera gertatzen da gizonen eta emakumeen afiliazio-tasak kontuan hartuz gero: tasa handienak Madrilen daude (gizonen % 81,5 eta emakumeen % 70,8), eta Euskadi bigarren tokiari ageri da, afiliazioari sexuaren arabera erreparatuta: % 75,7 eta % 67,7 hurrenez hurren.

Afiliatuen artean sexu bakoitzekoak duten proportzioa aztergai hartuta, Gaztela-Mantxak du gizonen proportzio handiena (% 58,6); eta, beraz, baita emakumeen proportzio txikiena ere.

# 2017ko afiliazio-txostena

## Norberaren edo besteren konturako afiliatuak eta jarduera ekonomikoa. Euskal Autonomia Erkidegoa

JARDUERA		2017ko batez bestekoa		
Kodea	Jarduera	Besteren kontura	Norberaren kontura	GUZTIRA
A01	Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiei lotutako zerbitzuak	3.054	4.932	7.986
A02	Basogintza eta baso-ustiapena	411	414	825
A03	Arrantza eta akuikultura	1.714	301	2.015
B05	Antrazitaren, harrikatzaren eta lignitoaren erauzketa	0	2	2
B06	Petrolio gordinaren eta gas naturalaren erauzketa	1	0	1
B07	Mineral metalikoen erauzketa	35	4	39
B08	Beste erauzketa-industria batzuk	470	21	491
B09	Erauzketa-industriak laguntzeko jarduerak	32	7	39
C10	Elikadura-industria	9.261	897	10.157
C11	Edarien fabrikazioa	2.137	306	2.443
C12	Tabako-industria	0	0	0
C13	Ehungintza	372	145	517
C14	Jantzigintza	564	355	919
C15	Larrugintza eta oinetakogintza	86	28	114
C16	Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak izan ezik; saskigintza eta espartzugintza	2.290	814	3.103
C17	Papergintza	3.313	84	3.397
C18	Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduzioa	2.415	811	3.226
C19	Koke-instalazioak eta petrolio fitntzea	1.028	2	1.030
C20	Industria kimikoa	4.428	162	4.590
C21	Farmazia-produktuen fabrikazioa	939	3	943
C22	Kautzuko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	11.030	1.609	12.639
C23	Metalikoak ez diren beste mineral-produktuen fabrikazioa	3.586	373	3.959
C24	Metalurgia: burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa	17.345	2.475	19.820
C25	Metalezko produktuen fabrikazioa, makinena eta ekipoen izan ezik	36.995	5.710	42.705
C26	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa	2.588	604	3.192
C27	Material eta tresneria elektrikoaren fabrikazioa	6.528	1.588	8.116
C28	Beste ezin lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	15.420	4.677	20.097
C29	Motordun ibilgailuen, atoi eta erdi-atoiaren fabrikazioa	12.767	963	13.729
C30	Garrariorako bestelako materialen fabrikazioa	7.534	199	7.733
C31	Altzarigintza	1.838	747	2.584
C32	Beste manufaktura-industria batzuk	1.387	436	1.823
C33	Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	4.242	1.073	5.315
D35	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza	1.755	33	1.788
E36	Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	1.433	9	1.443
E37	Hondakin-uren bilketa eta tratamendua	128	8	137
E38	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztatzea; baloan jartzea	4.003	88	4.090
E39	Deskutsatzeko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk	77	5	82
F41	Eraikinen eraikuntza	8.885	3.603	12.488
F42	Ingeniaritza zibila	2.120	267	2.387
F43	Eraikuntza espezializatutako jarduerak	20.642	17.722	38.365
G45	Ibilgailu motordunen eta motoen salmenta eta konponketa	9.804	3.391	13.196
G46	Handizkako merkataritza eta merkataritza-bitartekoak, ibilgailu motordunen eta motoen kasuan izan ezik	31.570	8.507	40.077
G47	Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunena eta motoena izan ezik	53.495	30.299	83.794
H49	Lurreko eta tutueria bidezko garraioa	17.950	9.312	27.262
H50	Itsas garraioa eta barneko bide nabigagarriaren eginkoia	706	25	731
H51	Aireko garraioa	331	3	334
H52	Biltegiatzea eta garraioari lotutako jarduerak	9.266	437	9.703
H53	Posta-jarduerak	2.858	481	3.338
I55	Ostatu hartzeko zerbitzuak	4.716	613	5.329
I56	Janari- eta edari-zerbitzuak	42.496	15.101	57.597
J58	Argitalpena	2.101	500	2.601
J59	Zinematografia, bideo, telebista-salo, soinu-grabaketa eta musika-edizioaren arloetako jarduerak	1.632	459	2.091
J60	Irratiko eta telebistako programazioekin eta emanaldiekin lotutako jarduerak	936	50	985
J61	Telekomunikazioak	2.110	236	2.346
J62	Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduerak batzuk	10.690	1.309	11.998
J63	Informazio-zerbitzuak	1.034	307	1.340
K64	Finantza-zerbitzuak, aseguruak eta pensio-funtsak izan ezik	9.013	2.090	11.102
K65	Aseguruak, berraseguruak eta pensio-funtsak, nahitaezko Gizarte Segurantzaren izan ezik	2.470	174	2.643
K66	Finantza-zerbitzuekin eta asegurekin lotutako jarduerak	2.345	2.078	4.423
L68	Hilgezinen jarduerak	2.329	1.504	3.833
M69	Zuzenbidearekin eta kontabilitatearekin lotutako jarduerak	9.407	3.913	13.320
M70	Egoitza nagusien jarduerak; enpresak kudeatzeari buruzko aholkularitza-jarduerak	3.774	2.523	6.296
M71	Arkitektureko eta ingeniarietako zerbitzu teknikoak; saiakuntza eta analisi teknikoak	11.871	3.509	15.379
M72	Ikerketa eta garapena	7.356	1.181	8.536
M73	Publizitatea eta merkatu-azterketak	3.038	1.303	4.341
M74	Beste jarduerak profesional, zientifiko eta tekniko batzuk	2.481	2.286	4.767
M75	Albaitaritza-jarduerak	463	350	814
N77	Alokairu-jarduerak	2.485	652	3.137
N78	Enpleguarekin lotutako jarduerak	9.064	84	9.148
N79	Bidaia-agentzien, bidaiari-antolatzaileen eta erreserba-zerbitzuen jarduerak eta horiekin lotutakoak	1.412	691	2.103
N80	Segurtasun- eta ikerketa-jarduerak	6.165	75	6.240
N81	Eraikinetako zerbitzuak eta lorezaintza-zerbitzuak	31.470	2.317	33.787
N82	Bulegoko administrazio-jarduerak eta enpresetako jardueren osagarriak diren beste batzuk	7.736	1.139	8.875
O84	Administrazio Publikoa eta defentsa; derrigorrezko Gizarte Segurantzaren	46.623	48	46.671
P85	Hezkuntza	60.061	4.811	64.872
Q86	Osasun-jarduerak	51.696	5.404	57.100
Q87	Egoitza-establimenduetako laguntza	15.699	189	15.887
Q88	Gizarte-zerbitzuen arloko jarduerak, ostalua eman gabe	17.188	282	17.470
R90	Sorkuntzarekin, artearekin eta ikusizunekin lotutako jarduerak	1.228	1.164	2.392
R91	Liburutegiak, artxiboak eta museoetako jarduerak, eta beste kultura-jarduerak batzuk	1.138	102	1.240
R92	Zoritzko jokoan eta apustuen arloko jarduerak	1.368	331	1.699
R93	Kirol-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	8.602	987	9.589
S94	Elkarleen jarduerak	8.628	1.021	9.649
S95	Ordenagailuen, norberaren gauzen eta etxean erabiltzeko gaien konponketa	1.154	2.754	3.908
S96	Beste zerbitzu pertsonal batzuk	7.538	6.946	14.484
T97	Etxeetako jarduerak, etxeetako langileen enplegatzaile gisa	32.771	25	32.795
T98	Etxeetako jarduerak, norberak erabiltzeko ondasunen eta zerbitzuen ekoizle gisa	0	0	0
U99	Lurraldetik kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak	31	14	45
	Sailkatu gabe	566	0	566
	<b>Guztira</b>	<b>751.713</b>	<b>172.447</b>	<b>924.159</b>

## Afiliatuen batezbestekoa urteko azken hilabeteetan (urte-amaierako afiliatuak, hileko batezbestekoa) jardueren arabera (EJSN, 2009)

